

## **HEZKUNTZA LEGE-AURREPROIEKTUAREN ZIRIBORROAZ:** **Euskal Kultur Transmisioaren begiradatik irakurketa kritikoa**

Hezkuntza Legean eta curriculum berrian euskal kulturaren transmisioa eta ezagutza bermatzea ezinbestekotzat dugun kultur eragileok, adierazi nahi dugu Hezkuntza Legearen zirriborroa irakurri dugula, eta egiaztatu dugula ez dela bermatzen euskal kultura zehar-lerro izatea, ez oinarritzko hezkuntzan, ez beste hezkuntza-eremu batzuetan ere. Hainbat alderdik kezkatu gaituzte: batetik, euskal kulturaren eta euskararen egoera diglosikoaren inguruko aipurik ez dago Hezkuntza Legearen kokapenean; bestetik, helburuetan ez dago euskal kulturari espresuki uztarturikorik; eta azkenik, ez dago euskal kulturaren transmisioa eta ezagutza bermatzeko erakunde, organo edo funtzio iraunkorrik.

Euskal kulturaren transmisioa bermatzeko oinarriak ezartzeko bidean, honako proposamen hauek egin nahi ditugu:

### **I. ANBIZIO KOLEKTIBO**

Munduak ziurgabetasun bereziko aro bat bizi duela aipatzen du, eta hainbat kezka soziopolitiko aipatzen ditu (larrialdi klimatikoa, migrazio-mugimenduak, iraultza teknologikoa, aldaketa demografikoa...), hezkuntza-sistemak erronkatat hartu behar dituenak, gizarte-aldaketaren prozesuan eraginkor izateko. Ziurgabetasun testuinguru horretan ez dute hezkuntza gutxituen edo kultura gutxituen inguruko aipamenik ere egiten, eta kontuan harturik Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurraldeetako hizkuntza koofizialetariko bat hezkuntza subordinatua dela, euskara, eta ondorioz, hezkuntza horretan sorturiko kultur adierazpideak kultura subordinatu batean ardatzen direla, testuinguru ezegonkor horretan euskararen eta euskal kulturaren egoera zaugarria ez aipatzea salagarria iruditzen zaigu. Euskal kulturaren biziraupena eta biziberritzeak ere behar luke egon XXI. mendeko Euskal Herriko hezkuntza-erronken artean.

Garapen Iraunkorra aldarrikatzeak eraginik izan behar du dimentsio linguistiko eta dimentsio kulturalen ere, ekosistema natural, sozial zein ekonomikoa zaintzearekin batera, ekosistema linguistikoa eta kulturala zaintzea funtsezkoa delako. Alde batetik, hezkuntza guztiek eta hiztun guztiek eskubide berak dituztela kontuan hartuta, hezkuntza bakoitzaren garapen jasangarria lortzea du helburu hezkuntza ekologiak. Hezkuntza bakoitzak mundu ikuskera bat gorpuzten du, hau da, mundua ikusteko, munduan eragiteko eta munduarekiko esperientzia historikoa gordetzeko modu berezi bat gorpuzten du. Hortaz, ondare hori zaintzearen garrantziaz mintzo da hezkuntza ekologia. Ekosistema linguistikoak zaintzea du helburu, eta bide horretan, ekologiaren ikuspegiak bere egiten ditu hezkuntza aniztasuna modu jasangarrian kudeatzeko, hezkuntza komunitate guztiekiko errespetua bermatzeko. Beste alde batetik, Hiri eta Tokiko Gobernu Bateratuen erakundeak 2004ean onartutako Kulturarentzako Agenda 21ean kultur eskubideak giza eskubideen parte banaezin direla aldarrikatzen da (Barbieri, 2015). 2015en lanerako dokumentu bat prestatu zuten, Kultura 21: ekintzak (UCLG - United Cities and Local Governments, 2015). Bere bederatzi ardatzeko bat kultur eskubideei eskaini zaie eta ekintza egingarri eta neurgarriak proposatzen dira. Orokorrean lau dimentsio hartzen ditu kontuan: gobernuak eta gizarte erakundeek kultur eskubideen diskurtsoa esplizituki hartzea; herritarren parte-hartzea, bai kultur praktikan, bai kultur politiken prestakuntzan, ezarpenean eta ebaluazioan; oinarritzko kultur zerbitzuak bermatzeko estandarrak garatzea; eta kultur politikan zeharkako helburuak sartzea (zaugarritasuna, generoa). Hezkuntza-esparruak ere kultur eskubideen markoa bere egin behar luke, are gehiago Garapen Iraunkorraren markoa bere eginez gero.

Kokatze orokorrean, bestalde, espazio publiko digital berria aipatzen da, eta komunikazio digital horretan trebatzeko urratsak egiteko premiaz hitz egiten da, baina ez da aipatzen espazio publiko digital horretan euskarazko sorkuntzak duen presentzia eta ikusgarritasun eskasa, ezta espazio publiko digital eta euskalduna elikatze eta egituratzeko erronkez jardun ere.

### **II. HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALIOAK**

Hezkuntza-sistemaren hiru ardatz dira izatea, jakintza eta elkarrekin bizitzea. Hiru ardatz horien garapenean kultur hezkuntzak funtsezko zeregina du, kulturaren bitartez elikatzen baitugu barne-mundua, kulturaren bitartez sortzen baitugu mundu sinboliko partekatuak, kulturaren bitartez izaten baitugu beste esperientzien berri, kulturaren bitartez eraikitzen baititugu elkarbizitzarako marko partekatuak. Kultur hezkuntzari dagokion indarra ematea garrantzitsua da, eta bide horretan, euskal herritar euskaldunak hezteko bidean, ezinbestekoa da euskal kulturaren hezkuntzak oinarritzko balio horiek elikatze duen funtzioa azpimarratzea. Azken finean, sormena pertsonaren garapen integralerako ezinbestekoa da. Sormena

pertsona aktibo eta kritikoak hezteko bitartekoa da. Sormenak elkarbizitza sustatzen du kulturgintzak bere komunitatearekin bat eginik baino ez du funtziorik.

## **2. ARTIKULUA. EUSKAL HEZKUNTZA-SISTEMAREN PRINTZPIOAK**

Zirriborroan zehar *euskal kultura* kontzeptua hainbat alditan erabiltzen da, baina oso modu anbiguoan erabiltzen da. Ez dago argi kontzeptu horren bitartez euskaraz sorturiko kulturari erreferentzia egiten dion, edo Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bi hizkuntza ofizialetan sorturiko kulturari erreferentzia egiten dion. Leku jakin batean esplizituki egiten du bigarren adiera horren alde, eta hartara, lehen adieraren alde egiteko aukera lausotzen eta oztopatzen du. Hain zuzen ere, 2. artikuluan, «Euskal hezkuntza-sistemaren printzipioak» izenekoan, d) atalean hauxe dio: «d) Euskal kultura eta haren bi hizkuntza ofizialak ezagutzen dituzten eta beren ondare ukiezinen erabilera eta ezagutza baloratzen duten pertsonak prestatzea». *Euskal kultura* kontzeptua euskarazko sorkuntzaren adieran beste pasarte batzuetan ere aipatzen da, baina pasarte horiek ez dute printzipioen zerrendaren neurriko garrantzirik.

Sarritan *euskal* izendapena EAEn sinonimotzat erabiltzen da, eta ondorioz, hiztun-komunitatea eta kultur komunitatea aintzat hartzen ez dituen ardatz bat sortzen du, lurraldetasunaren ikuspegiari iskin egitearekin batera.

## **9. ARTIKULUA. CURRICULUMA ETA OINARRIZKO GAITASUNAK**

Curriculum-edukiak eta curriculumean egituraturiko gaitasunak zein prozedurak Euskal Curriculumaren markoa ardatz hartu behar dutela ez da zehazten, eta Heziberrin Euskal Curriculumaren eta euskal dimentsioa zehar-lerro izatearen bidean eginiko urratsak ez dira aintzat hartu, ezta arautu ere. Kalitatezko hezkuntzaren bidean, ezinbestekoa da euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatzea, eta transmisioak bi lan-ildo sinkronizatu behar ditu: 1) Euskarazko kulturgintzaren historia eta orainaren ezagutza. 2) Euskaraz sortzeko grina transmititzea askotariko kultur adierazpideetako ereduak jaso eta praktikatu.

## **17. ARTIKULUA. ARTE-IRAKASKUNTZAK ARAUTZEA**

Artikulu honetan oinarrizko hezkuntzatik at kokatzen diren arte-irakaskuntzak arautzen dira, eta atal horretan garaturiko zehaztapenetan ez dago herri-kulturak arautzeko edo babesteko adierazpenik. Jakinaenez, herri-kulturari loturiko hainbat arte-adierazpen (bertsolaritza, herri-musika, dantza...) arte-hezkuntza arautuan ez dute aitortzarik, eta halako aitortza bat eta arautze-prozesu bat abian jartzeak bermatuko luke pixkanaka herri-kultura horretako profesionalen ezagutza hedatzea, baita profesionalen zein ikasleen baldintzak hobetzea ere.

## **69. ARTIKULUA. HIZKUNTZA-PROIEKTUAK HEZKUNTZA-SISTEMAN**

Hizkuntza-proiektua garatzeko irizpide zenbait ematen dira artikulu honetan, baina ez zaio inolako erreferentziarik egiten euskal kulturaren ezagutzak, esperientziak edo praktikak bereganatzeko urratsei. Euskarazko kulturgintzaren ezagutza eta praktika ezinbestekoak dira irakaslearen eta ikaslearen hizkuntz gaitasunak bermatzeko. Hitzeko euskarazko kultur adierazpideen ezagutzak eta praktikak irakasleak eta ikasleak hizkuntz-gaitasunean etengabe trebatzea lekarke, bai idatzizkoetan bai eta batez ere, ahozko gaitasunak eskuratzeko lanketan. Hizkuntza bat eta bere kulturgintza bereiziezinak dira. Euskara eta euskarazko kulturgintza bereiziezinak dira. Euskara ez da normalizatuko euskarazko kulturgintzaren ekosistema osasuntsu ez badago. Euskarazko kulturgintzaren ekosistema ez da inoiz osasuntsua izango euskararen ezagutzak eta erabilerak esponentzialki gora egiten ez badute. Gure ustez, hizkuntza-proiektuetan artikulatu eta egituratu beharko litzateke ikastetxeko euskal kulturaren plana ere, eta kultura-plan horretan, ezinbestean, euskal kulturak izan beharko luke ardatz eta zehar-lerro nagusi.

## **72. ETA 73. ARTIKULUAK. IRAKASLEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA HOBETZEKO PRESTAKUNTZA, ETA IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN**

Prestakuntza-plana diseinatzean ez zaio erreferentziarik egiten euskal kulturaren inguruko ezagutzan trebatzeari, ezta euskal kulturaren irakaskuntzan zein transmisioan trebatzeari ere. Gure ustez, irakaslearen hizkuntza-gaitasunean eragin zuzena du euskal kulturarekiko atxikimenduaren neurriak, baita hizkuntzen irakaskuntzarako gaitasunetan ere.

## **91. EUSKARA ETA HIZKUNTZEN IKASKUNTZARAKO INSTITUTUA**

Zirriborroan hitzarmenean (2022ko martxoaren 24koan) zehazturiko izendapena aldatu da. Euskararen Ikaskuntzarako Institutua izendapenari eustea garrantzitsua da, euskararen eta euskal kulturaren biziberritzea helburu izango duen erakundea izan dadin. Zentzu horretan, euskal kulturaren transmisioaren ardura ere atxiki behar zaio institutu honi, eta beraz, garrantzitsua da artikulu honetan alderdi hauek ere

gehitzea: 3. puntuan, Kulturaren Euskal Kontseiluaren lan-ildoak kontuan hartzea; 4. puntuan, a) Irakasleak euskal kulturaren ezagutzan eta kulturaren irakaskuntzarako metodologietan gaitzea; c) Eskola-materialetan euskal kulturaren zehar-lerro izaera lantzea.

#### **98. HEZKUNTZA-PROIEKTUA**

4. puntuan, hezkuntza-proiektuan beste bi osagai hauek gehitzea funtsezkoa da: d) Ikasleen euskarazko komunikazio-gaitasunak garatzea, euskararen biziberritzearen erronkei aurre egiteko behar bezala prestatzearen; e) Ikasleek euskal kulturaren esparruan dituzten ezagutzak eta gaitasunak garatzea, euskal kulturaren biziberritzearen erronkei aurre egiteko behar bezala prestatzearen, eta euskal komunitatea trinkotzeko herritar eta eragile bilaka daitezen.

#### **AGERRALDIAK**

Euskal kultur transmisioa hezkuntza arautuan berma dadin eskatzeko hainbat agerraldi egin dira:

► [«Hezkuntza Legean euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatzeko eskatu dute 63 kultur eragilek eta sortzailek»](#), *Berria*, 2022-06-16.

► [«Hezkuntza Legean euskal kultura “zehar-lerro” izan dadin eskatu dute hamaika sortzailek Durangoko Azokan»](#), *Berria*, 2022-12-10.

#### **ELKARRIZKETA**

► [«Euskal dimentsioa faltan»](#), *Berria*, 2023-01-13.